

# HAUR HEZKUNTZA GRADUA

## Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



### III MODULOA KOMUNIKAZIO LANABESAK MODULUA

2020/21 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

HEFA-II ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA

## **AURKIBIDEA**

1.-Sarrera.....	3
2.-Konpetentziak.....	3
3. Taldeen egitura.....	5
4. Lan GIDATUA.....	5
5. kronograma.....	8
6. Ebaluazioa.....	9
7. eranskinak.....	12

## 1.- SARRERA

---

Gida honen bidez, Haur Hezkuntzako 2. mailako lehen sei hilekoan burutu behar den modulu-lana aurkezten da. Lan hau Haur Hezkuntzako Graduan burutuko diren 5 modulu-lanen artean hirugarrena da, eta Komunikazio Lanabesak du izena. Lehen sei hilekoan dauden ikasgai guztiek osatzen dute modulu-lan hau: Haurtzaroaren Psikologia, Komunikazio Gaitasunaren Garapena (Euskara eta Gaztelania)-II, Ikastetxearen Antolakuntza eta Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan. Lan honen helburua Haur Hezkuntzan jolasaren inguruko behaketa eta gogoeta bideratzea izango da. Ondorengo lerroetan jasotzen dira hori burutzeko beharrezko orientabideak.

Moduluan parte hartuko duten irakasleak izango dira:

- **Komunikazio Gaitasunaren Garapena (Euskara eta Gaztelania)- II:** Ana Gandara
- **Haurtzaroaren Psikologia:**
- **Ikastetxearen Antolakuntza:** Nahia Intxausti
- **Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan:** Marta Sarasa
- **Moduluaren Koordinatzailea:** Ana Gandara

## 2.- KOMPETENTZIAK

---

Modulu-lanean lantzen diren Haur Hezkuntza Graduko kompetentzia orokorrak:

<b>G001</b>	Haur Hezkuntzaren helburuak, curriculum-edukiak eta ebaluaketa-irizpideak ezagutzea, horien berezitasun epistemologikoa eta horien didaktikaren berariazkotasuna ulertuz, baita diziplinen arteko harremana ere, neska-mutilen lana prestatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko.
<b>G003</b>	Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua.
<b>G006</b>	Lehen haurtzaroan hizkuntzaren bilakaera ezagutzea, egon litezkeen disfuntzioak identifikatzen jakitea eta horiek egoki garatu daitezela zaintzea. Kultura anitzeko eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan hizkuntzak ikasteko egoerak eraginkortasunez aztertzea. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta espresatzeko teknika desberdinen erabilpena menderatzea. Euskara eta gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna frogatuz –C1 eta B1 mailak, hurrenez hurren– bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguru batean gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.
<b>G007</b>	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta, bereziki, telebistak lehen haurtzaroan dituzten hezkuntza-ondorioak ezagutzea. Informaziorako eta komunikaziorako hedabide desberdinak modu kritikoa erabiltzea (IKTak, liburutegiak, fonotekak...), ezagutza-iturriak eskuratu ahal izateko

	eta komunikazio-lanak, ikaskuntza, ikerketa eta lankidetzaz bidezko lana sustatzeko.
<b>G011</b>	Maila honetako irakasle guztiak jarduerak elkarlanean planifikatzea. Irakaskuntza-lana eta jardura profesionala berritzeko eta hobetzeko ikasgelan egiten diren praktiken inguruan taldean gogoeta egitea. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.
<b>G012</b>	Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarriko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza-prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun eman ahal izango diona. Kalitatea hobetzearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.
<b>G013</b>	Ikerketatik abiatuta hezkuntzak dituen kontzeptzioak aztertzea eta balioestea, baita Hezkuntza Administrazioaren curriculum-proposamenak ere, hezkuntza-proiektuak eta programazio-unitateak diseinatu eta garatzeko, curriculum testuinguru soziokultural aldakorretara egokitzea ahalbidetuko baitu horrek.
<b>G014</b>	Epealdi honetan neska-mutilen garapen emozionala, soziala eta kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea.
<b>G015</b>	Komunikazio-kompetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.

Modulu-lanaren konpetentziak eta Haur Hezkuntza Gradu konpetentziekin duten lotura:

1. Taldean jolasari buruzko informazioa bilatu, iturri fidagarri eta anitzetan oinarrituz (liburuak, aldizkari akademikoak, web orriak). (G007)
2. Atal teorikoan oinarrituz, haurren jolasari buruzko behaketaren deskribapena eta analisi zehatza burutzea diziplinartekotasuna kontuan izanik. (G001, G003, G012, G013)
3. Jolasek haurren hezkuntzan eta garapenean duten garrantzia ezagutzea nahiz balioestea, eta taldean hobekuntzak proposatzea, eremu teorikotik eta behaketetatik jasotako irizpideen arabera. (G012, G013, G014)
4. Lan prozesuan taldearen funtzionamendua arduraz kudeatzea (talde lana planifikatu, egin beharreko lanak osatu eta epean entregatu, lanaren aurkezpenetan kide guztiak parte hartu, talde lanaren errubrika bete, eta abar). (G011)
5. Jolasei buruzko diziplinarteko idazlanak aurreikuspenez planifikatzea (lanaren zirriborroak) eta azken txostena egitea testuaren zuzentasuna, egokitasuna, antolaketa eta APA arauen irizpideak kontuan izanik. (G006, G011, G015)

6. Haur Hezkuntzan jolasaren baldintza aproposak sustatzeko proposamen egokiak sormenez adieraztea. (G011, G015)

### 3. TALDEEN EGITURA

---

Ikasleek taldeak osatu beharko dituzte, taldeen ezaugarriak ondorengoak izango direlarik:

- Taldekideen kopurua 4-5ekoa izango da.
- Taldekideek talde-fitxa bete beharko dute irailaren 11rako. Moduluko koordinatzaileari entregatuko diote. Talde bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Taldekideak konprometitzen dira talde lanetan modu aktiboan parte hartzen.

*Oharra:* seihileko honetan ikasgai bakar batean matrikulatua egonez gero, ez da derrigorrezkoa izango moduluko lana egitea. Haurtzaroaren Psikologia baliokidetua dutenek moduluan parte hartu beharko dute. Horrez gain, talde bakoitzean ezin izango dira Haurtzaroaren Psikologia baliokidetua duten bi pertsona baino gehiago egon.

### 4. LAN GIDATUA

---

Moduluko lanaren emaitzak ondorengoak izango dira:

#### 4.1. LAN IDATZIAREN ATALAK

4.1.1. Azala

4.1.2. Aurkibidea

4.1.3. Atal teorikoa: laburra izango da (gehienez 7 orrialdekoa). Ondorengo informazioa bildu beharko du: jolasaren definizioa, jolasaren garrantzia eta funtzioak, jolas motak (librea eta gidatua kategorizazioa erabiliz), hezitzailearen rola eta komunikazioa jolasean, jolaserako espazio eta materialak, hezkuntza laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten pertsonak jolasean.

4.1.4. Behaketaren emaitzak: Taldekide bakoitzak haur baten jolasa behatuko du. Banaka egin beharrekoa izango da. Norberak bere praktikaldian gauzatuko du, ondorengo urratsak jarraituz:

- Praktikaldiaren 1. eta 2. asteetan zehar, ikasleak praktikan dagoen ikastetxean ondorengo zereginak beteko ditu:
  - Ikastetxearen hezkuntza proiektua irakurri eta jolasari buruz zerbait jasotzen den aztertu. Ondoren, jolas libre edota gidatuaren antolaketa eskolan nolakoa den aztertu.
  - Hurrengo asteetan zehar behatuko den haur bat aukeratu.

- Haur horren behaketak egingo diren uneak erabaki (haurra gelan eta jolastokian behatu beharko da).
- Praktikaldiaren 4. asteen haurra eta bere jolasean eragina duten baldintzak behatuko dira une eta leku desberdinetan. Behaketa egiteko ondorengo kontuan izan behar da:
  - Aukeratu den haurra bost egunetan behatu behar da. Praktikaldiaren 4. asteen, egun bakoitzean 1.go Eranskineko behaketa tresnaren arlo bat behatuko da.
  - Behaketa egiteko tresna 1.go Eranskinean dago eskuragarri.
  - Behaketa tresna erabili ahal izateko, ikasgelako tutoreari agertuko zaio Practicum I-ari dagokion behaketa aktiboaren barne behatuko direla haurren jolasa eta haren baldintzak.

Lan hori guztia banaka egin ostean, klasera itzultzean taldean egin beharrekoa izango da:

- Bakarka egindako lana taldekideekin partekatu:
  - Hezkuntza proiektua eta jolasaren antolaketa nolakoa duen eskolak komentatu.
  - Bakoitzak burutu dituen haurraren behaketak idatziz jasoko ditu.
- Hezkuntza proiektu eta jolasaren antolaketaren eta behaketa tresna osatzen duten azpiatalen alderaketa: taldeko ikasle guztiek ikastetxe bakoitzean jasotako datuak, bost azpiatale dagozkienak (hezitzailea, haurra eta jolasa, espazioa eta materialak, pertsonarteko komunikazioa eta aniztasunarekiko begirunea), beren artean konparatuko dituzte.

#### 4.1.5. Behaketaren talde ondorioak eta gogoeta

- Ondorioak: behaketa tresnaren azpiatal bakoitzean lortutako emaitzak atal teorikoan idatzitakoarekin alderatu eta, oro har, ondo dauden alderdiak eta hobetu beharrekoak aipatuko dira.
- Azken gogoeta: talde-hausnarketa (moduluko lan hau egitean ezer berria ikasi den, lana egiteko topatu diren erraztasun eta zailtasunak, lanaren erabilgarritasuna, eta abar).

4.1.6. Erreferentziak: lanean zehar aipatu diren autoreen erreferentziak txertatuko dira, APA arauak jarraituz. Modulurako derrigorrezko materialaz gain, gutxienez beste 6 iturri kontsultatu beharko dira.

#### 4.1.7. Eranskinak: gutxienez ondorengo hiru eranskinak gehituko dira

- Haurra behatzeko taldekide bakoitzak erabilitako tresna, lortutako emaitzekin (1.go Eranskina).
- Talde lanaren ebaluazio errubrika betea (2.go Eranskina).
- Moduluko lana ebaluatzeko galderen erantzunak (3. Eranskina).

## 4.2. LANA BURUTZEKO MATERIALAK ETA EMANGARRIAK

4.2.1. Lana burutzeko, besteak beste, ondorengo derrigorrezko materialak erabiliko dira:

- Bofarull, N., eta Fernández, M. P. (2012). Diferencias en la comunicación y juego simbólico en niñas sordas y oyentes. *REIFOP*, 15 (3), 45-58.
- Caurcel, M. J. (2010). Contextos de desarrollo y juego en la edad infantil. In A. Muñoz (Koord.), *Psicología del desarrollo en la edad infantil* (165-197 or.). Pirámide.
- Chokler, M. (2005). Cómo se juega el niño cuando juega. In A. Fresquet & M. L. Porcar (Eds), *Deconstruir, reconstruir* (97-104 or.). EFE.
- Costa et al., (2007). *Juego, juguetes y discapacidad: la importancia del diseño universal*. AIJU.
- Delval, J. (2004). El juego. In J. Delval (Ed.), *El desarrollo humano* (283-308 or.) (6. Ed.). Siglo XXI.
- Falk, J. (2003). Los fundamentos de una verdadera autonomía en el niño pequeño. In E. Herran (Ed.), *Claves de la educación Pikler-Lóczy*. (89-114 or.). Realpress.
- Marasca, R., Herrero, M. I., Curti, J., Nanzer, C., eta Faas, A. (2017). Evolución del juego infantil. In A. Faas (ED.), *Psicología del desarrollo* (267-273 or.). Brujas.
- Tardos, A. (2006). Las actividades dirigidas. *Revista Infancia*, 98, 8-12.
- Tardos, A. (2011). *El adulto y el juego del niño*. Octaedro.
- Tonucci, F. (2016). *Con ojos de maestro*. Eskuragarri <https://www.youtube.com/watch?v=hxbZLeaF7OI>
- Woodhead, M., Oates, J., Grupo de Estudios sobre el niño y el joven, La Universidad Abierta, eta Keynes, M. (2013). *La primera infancia en perspectiva 9: El derecho al juego*. La Universidad Abierta.

4.2.2. Emangarriak: ikasle taldeek hiru emangarri eman edo erakutsi beharko dituzte, kronogramaren atalean adierazten diren datatarako:

- **Lehen emangarria:** lanaren atal teorikoaren zirriborroa eta hori idazteko erabili diren dokumentuen erreferentziak dagokion tutoreari eman.
- **Bigarren emangarria:** talde bakoitzean ikasleek hezkuntza proiektua eta jolasaren antolaketari buruzko idatzia eta banaka egindako behaketak erakutsiko dizkiete euren moduluko tutoreei, haien egiazta dezaten ikasle bakoitzak bere lana egin duela (egindako lana paperean edo ordenagailu bidez erakutsi daiteke). Bestalde, talde lanaren emaitza edo ondorio eta gogoeta atalari dagozkion zalantzak argitu eta gainbegiratuko dira. Gainbegiratzeak klase praktikoetan gauzatuko dira.
- **Azken emangarria:** idatzizko lan osoa izango da, azken bertsioa eta eskatutako atal guztiak biltzen dituena. Paperean 2 kopia entregatu beharko dira (zuri beltzean eta graparekin). Letra mota, Arial eta bere tamaina 11koa izango da; paragrafoa, berriz, lerroarteko bakuna. Marjinak justifikatuak egongo dira.

Lanaren luzera 15 orrialde ingurukoa izango da, eranskinak eta erreferentziak kontatu gabe.

### 4.3. AURKEZPEN TXOKOAK

- Aurkezpen txokoetarako talde praktiko bakoitza (bai GA1 eta baita GA2 ere) bitan banatuko da.
- Talde bakoitzak txoko bat izango du eta behaketa tresna bidez behatutako bost azpiataletako bat aukeratuko du edo esleituko zaio txoko horren gai gisa. Gauzatutako lan teoriko-praktikoan oinarrituz, egokitutako azpiatal zehatzean proposak diren praktikak edo baldintzak salduko dizkiete gainerako taldeetako ikaskideei, beti ere sormena erabiliz eta proposamen erakargarri eta berritzaileak eginez. Ikaskideek, txokora gerturatuko direnek, ikastetxe desberdinetako zuzendari, ikasketa buru edota irakasle tutoreak balira bezala jardungo dute, eta galderak egingo dizkiete aurkezleei, azken horien proposamenak balioeste edo zalantzan jartze aldera. Gainera, txoko bakoitzeko ikastaldearen proposamena eta jarduna ebaluatuko dute bertaratu diren ikaskideek.
- Talde bakoitzak 20 minutu izango ditu txoko bakoitzean beren proposamena aurkezteko eta kideekin solasean aritzeko. Aurkezpen bakoitza amaitzean, beste taldeen txanda izango da, horrela bost taldeek aurkezpena egin arte.
- Aurkezpen saioetara ikasle guztiak etorri beharko dira. Beraien proposamena aurkezteko modua librea izango da, sormena baloratuko delarik (argazkiak, irudiak, musika, ariketak, materialak).

### 4.4. LAN IDATZIAREN ENTREGA

Lan idatzia abenduaren 17an, ostegunean, entregatuko da, eguerdiko 14:30ak baino lehen.

Moduluko koordinatzaileari entregatuko zaio lana edo bere postontzian utziko da.

## 5. KRONOGRAMA

Egitekoak	Data	Nork/Nori/Norekin
Talde fitxa eman (abizenak alfabetikoki ordenatu fitxan)	Irailak 11	Moduluko koordinatzaileari
Lanaren lehen emangarria egin	Irailak 14-urriak 1	Tutoreak
Lanaren lehen emangarria eman	Urriak 1	Tutoreei
Lanaren lehen emangarriaren feedbacka eman ikasleei	Urriak 5-9	Tutoreak



Lanaren bigarren emangarria erakutsi edota egiten jardun, eta bitarte horretan irakasleen feedbacka jaso	Azaroak 16-abenduak 2	Tutoreei
Aurkezpen txokoetarako gaien aukeraketa edo esleipena egin	Azaroak 27	Moduluko koordinatzailearekin
Aurkezpen eguna	Abenduak 15, 16 eta 17	GA1 eta GA2 taldeak banatuko dira, tutoreen laguntzarekin.
Lan idatzia eman	Abenduak 17	Moduluko koordinatzaileari

## 6. EBALUAZIOA

- Lan idatzi bakoitza bi irakaslek ebaluatuko dute.
- Irakasgai guztiek 1,2 ECTS<sup>1</sup> kreditu eskainiko dizkiote proiektuari, baina Ikastetxearen Antolakuntza irakasgaiak 0,9 kreditu ikasturte osokoa baita.
- Irakasgai guztiek moduluko lanari emango dioten balioa %20koa izango da, salbu eta Komunikazio Gaitasunaren Garapena –Euskara eta Gaztelania– II irakasgaiari; azken horretan % 15ekoa izango da.
- Irakasgai guztien ikuspegiak kontuan izanik baloratuko da modulu lana.
- Irakasgai guztietan lana gauzatzeko prozesuak 0,4 puntu balioko ditu, talde bakoitzak dagokion txokoan egingo duen aurkezpenak 0,6 puntu eta lan idatziak puntu 1. Komunikazio Gaitasunaren Garapena –Euskara eta Gaztelania– II irakasgaiari ordea, lana gauzatzeko prozesuak 0,3 puntu balioko ditu, talde bakoitzak dagokion txokoan egingo duen aurkezpenak 0,45 eta lan idatziak 0,75
- Beharrezkoa da modulu lana gainditzea irakasgaiak gainditu ahal izateko.

Ondorengoak dira moduluko lana ebaluatzeko erabiliko diren errubrikak:

PROZESUA	Bikaina	Oso ona	Ona	Nahikoa	Hobetzekoa
<b>4. KOMPETENTZIA:</b> Lan prozesuan taldearen funtzionamendua arduraz kudeatzea (talde lana planifikatu, egin beharreko lanak osatu eta epean entregatu, lanaren aurkezpenetan kide guztiek parte hartu, talde lanaren errubrika bete, eta abar).					
Talde lana ongi kudeatu dute (2. go Eranskineko errubrikaren arabera).					

<sup>1</sup> Kreditu ECTS bakoitzeko 10 ordu aurrez aurrekoak eta 15 ez aurrez aurrekoak dira.

Egin beharreko lanak epe barruan entregatu edo erakutsi dituzte (lanaren hiru emangarriak eta zirriborroak egoki burutu dira).					
Aurkezpen txokoan taldekide guztiak zeuden					
<b>LAN IDATZIA</b>	<b>Bikaina</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Ona</b>	<b>Nahikoa</b>	<b>Hobetzekoa</b>
<b>1. KONPETENTZIA: Taldean informazioa bilatu jolasari buruz, informazio iturri fidagarri eta anitzetan oinarrituz (liburuak, aldizkari akademikoak, web orriak).</b>					
Informazio iturri zientifiko eta eguneratueta oinarritzen dute lana					
Modulu-lanerako irakasleek proposatutako oinarritzko materialaz gain, datu-base akademikoetako gutxienez 6 iturri erabili dira atal teorikorako.					
Aukeratutako informazio iturriek moduluko ezagutza arlo desberdinei buruz berri ematen dute.					
<b>2. KONPETENTZIA: Atal teorikoan oinarrituz, haurren jolasari buruzko behaketaren deskribapena eta analisi zehatza burutzea diziplinartekotasuna kontuan izanik.</b>					
Behaketa tresnan jasotako informazioa xehea da.					
Lanaren emaitzen atalean, taldekide guztien ekarpenak argi ikusten dira.					
Banakako behaketen arteko alderaketa egokia egin da, behaketa kategoria bakoitza kontuan hartuta.					
<b>3. KONPETENTZIA: Jolasen garrantzia haurren hezkuntzan eta garapenean ezagutu eta balioetsi nahiz hobekuntzak proposatzea taldean, eremu teorikotik eta behaketetatik jasotako irizpideen arabera.</b>					
Behaketa tresnaren bost azpiatalak ondorioetan argi bereizten dira.					

Behaketa tresnaren bost azpiatalen ondorioak atal teorikoko ekarpenekin uztartu dira.					
Behaketa tresnaren bost azpiataleak dagokienez, hobekuntza proposamenak egin dira.					
Jolasaren baldintza aipatutako buruzko hausnarketa egin da.					
Lanari buruzko hausnarketa orokorra burutu da					
<b>5. KOMPETENTZIA: Jolasei buruzko diziplinarteko idazlanak aurreikuspenez planifikatu (lanaren zirriborroak) eta azken txostena egin testuaren zuzentasuna, egokitasuna, antolaketa eta APA arauen irizpideak kontuan izanik.</b>					
Testuaren antolaketa: lan idatziaren atalak argiak dira.					
Testuaren kohesioa eta koherentzia: ideien arteko lotura argia da eta atalen nahiz paragrafoen arteko loturak egokiak dira.					
APA arauak jarraitzen dira.					
Testuaren egokitasuna: dagokion erregistroan egin da lana, irakurteraza da eta haurtzaroko hezkuntzari dagokion hiztegia erabiltzen dute.					
<b>AURKEZPENA</b>	<b>Bikaina</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Ona</b>	<b>Nahikoa</b>	<b>Hobetzekoa</b>
<b>6. KOMPETENTZIA: Haur Hezkuntzan jolasaren baldintza aipatutako sustatzeko proposamen egokiak sormenez adieraztea.</b>					
Taldea dagokion txokoa bete-betean sartzen da.					
Txokoa aurkeztutakoak ebidentzia zientifikoan du oinarria.					
Ahozko deskribapen argiak eta arinak eman dituzte.					
Kideen artean solasaldia sortzen ahalegintzen dira.					

Taldekide guztiek aktiboki parte hartu dute txokoa aurkeztu eta bertako ideiak garatzeko unean.					
Beraien gaia zein den argi geratu da.					
Beren txokoko helburuekin lotura duen hausnarketa bideratu dute.					

## 7. ERANSKINAK

---

**1.go Eranskina: behaketa tresna (aparteko orrian)**

**2.go Eranskina: talde lanaren ebaluazio errubrika**

**TALDE LANA VERSUS LANTALDEA/ELKARLANA: EBALUATZEKO ERRUBRIKA (1)**  
**(BALORAZIOA: 1: ESKAS; 2: HOBETU BEHAR; 3: OSO ONGI; 4: BIKAIN)**

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>AUTOE Izena</b>	<b>Lank. 1 Izena</b>	<b>Lank. 2 Izena</b>	<b>Lank. 3 Izena</b>	<b>Lank. 4 Izena</b>
<b>EKARPENAK eta PARTAIDETZA</b>	Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak eta saiatzen da hauek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Ezagutza sakontzeko besteei ideien argudioak eskatzen dizkie. Ulertzen ez duenean galdetzen die lankideei, eta azalpena berak baldin badaki lankideei eskaintzen die.					
<b>JARRERAK</b>	Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du, Besteen partaidetza bultzatzen du. Lankideei laguntza ematen die eta beren merituak aitortzen ditu. Ideiak kritikatzeko dituzte, ez pertsonak. Taldea kohesioa mantentzen saiatzen da eta lankideen gogo-aldarteak kontuan hartzen saiatzen da. Zailtasun aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak.					
<b>ERANTZUNKIZUN A</b>	Adostutako arauak betetzen ditu. Bere lanak adostutako epeetan ematen ditu. Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazioa. Lana eman baino lehen orraztu egiten du. Hartutako konpromisoak betetzen ditu.					
<b>AGERTZE eta PUNTUALTASUNA</b>	Bilera guztietara agertzen da. Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. Kalera bat egiten bada edo berandu ailegatzen bada ongi justifikatzen du.					
<b>GATAZKEN KONPONKETA</b>	Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. Tentsioak bideratzen saiatzen da. Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du.					
	Egokitua. Iturriak: Johnson, D.W eta Johson, R.T. (2014): <i>La evaluación en el aprendizaje cooperativo</i> . Espainia, Edit. SM. Chica Merino, E. (2011). Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. <i>Escuela Abierta</i> , 14, 67-81.					

<b>TALDEA EBALUATZEKO ERREGISTRO ORRIA</b>					
<b>BALORAZIO TAULEN LABURPENA</b>					
<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>1.</b>	<b>2.</b>	<b>3.</b>	<b>4.</b>	<b>5.</b>
EKARPENAK ETA PARTAIDETZA					
JARRERA					
ERANTZUKIZUNA					
AGERTZE ETA PUNTUALTASUNA					
GATAZKEN KONPONKETA					
GUZTIRA					

### **3.go Eranskina: ikasle taldeek betetzeko moduluaren ebaluaketa orria**

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu dituzuela uste al duzue? (Moduluko konpetentziak DILAN txostenean topatuko dituzue)
  
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
  
- 3) Nolakoa izan da zuen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzetan onurarik atera al duzue?...).
  
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
  
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko al zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko al zenuke? Zeintzuk?